

## Bestelako Xedapenak

### KULTURA SAILA

#### 2302

AGINDUA, 2011ko martxoaren 28koa, Kulturako sailburuarena, Sukarrietako Begoñako Andra Mari Haur Kolonia (Bizkaia) monumentu-multzo kategoriako kultura-ondasun deklaratzeko duena, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

2010eko maiatzaren 17an, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak ebazpen bat eman zuen, Sukarrietako Begoñako Andra Mari Haur Kolonia (Bizkaia) Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera emateko, haren balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik. Ebazpena 2010eko abuztuaren 13an argitaratu zen EHAA-n (155. zk).

Espediente horren administrazio-izapidean, lehen aipaturiko 7/1990 Legearen 17. eta 11.3 artikuluetan ezarritakoarekin bat, jendaurrean jarri zen espedientea eta interesdunei entzuteko epea ireki zen.

Horretarako lege ezarrira dauden izapideak bete ondoren, hainbat alegazio-idazki aurkeztu dira: Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioarena (Euskal Herriko Itsasertz-Mugarteren izenean), Bizkaiko Foru Aldundiarena, BBKrena, Sukarrietako Udalarena, Iñaki Uriarte Palacios jaunarena eta, epez kanpo, Busturiako Udaleko lau zinegotzirena. Alegazioak luzeak direnez, beraien laburpena egingo dugu, eta alegazio-egile bati baino gehiagori emandako erantzunak ez ditugu errepikatuko.

Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren ustez (Euskal Herriko Itsasertz-Mugartea), monumentu-multzoaren mugaketa-eremuan jabari publikoa okupatzeko emakida duen lurzatia sartzea ez da beharrezkoa, zeren eta, haren iritziz, Kostaldee buruzko Legeak berak eta ingurumarian aplikatzekoa den araudiak jadanik bermatzen baitute ingurumen-balioen babesa. Hori dela eta, esan beharra dago lurzatia mugaketa-

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

#### 2302

ORDEN de 28 de marzo de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la Colonia Infantil Nuestra Señora de Begoña, sita en Sukarrieta (Bizkaia) como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural de la Colonia Infantil Nuestra Señora de Begoña, sita en Sukarrieta (Bizkaia), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 17 de mayo de 2010, publicada en BOPV n.º 155, de 13 de agosto, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, han presentado alegaciones el Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino (Demarcación de Costas del País Vasco), la Diputación Foral de Bizkaia, la BBK, El Ayuntamiento de Sukarrieta, D. Iñaki Uriarte Palacios y, fuera del plazo concedido, cuatro concejales del Ayuntamiento de Busturia. Dada la extensión de las alegaciones se procede a realizar un resumen de las mismas, omitiendo la repetición de la contestación a las realizadas por varios alegantes.

El Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino (Demarcación de Costas del País Vasco) no considera necesaria la inclusión de la parcela que cuenta con concesión de ocupación de dominio público en el ámbito de delimitación del Conjunto Monumental porque estima que la protección de los valores ambientales en que se basa puede ser garantizada por la propia Ley de Costas y el resto de

ren barruan sartzea justifikatuta dagoela inguruneke instalazioak eta ingurumen-balioak zaintzeko behar-rerengatik, alegia, ondarearen babesaren ikuspegi global eta bateragarri batetik begiratuta, ingurumenaren eremua kontserbatze soiletik harago.

Itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren zor-eremuko eragina dela eta, Ministerioak dio ezen, nola eta Kostaldee buruzko Legea indarrean sartu aurreko obra eta instalazioak diren, zilegi izango direla bolumen-handiterik ez dakarten konponketa eta hobekuntza lanak, bai eta orain indarrean dauden legezko erabilerak ere. Horri dagokionez, gogoan hartu behar da ondasun bat babesteko ez duela esan nahi, berez, nahitaezkoa denik obrak egitea, baizik eta jabeak obligazioa duela ondasuna kontserbatzeko, zaintzeko eta babesteko, haren osotasuna ziurtatzeari begira eta ondasuna galtzea ekiditeari begira.

Igarobide-zortasunari eta itsasora heltzeko zortasunari dagokionez, zeinak agintzen baitu oinezkoentzako pasabide publiko librea utzi behar dela itsasertzetik gutxienez sei metroko zabalerako zerrendan, esan behar da Kolonia babesteko ez duela zertan eragotzi mugaketaren barruko gainerako lurren erabilerak eta zortasunak, betiere bermatzen bada aipaturiko ondasuna kontserbatzeko, zaintzeko eta babesteko obligazioa.

Bestalde, Ministerioak dio kasu honetan ezin dela aplikatu Kostaldee buruzko Legearen hirugarren xedapen iragankorra, xedapen horrek legea indarrean sartu aurreko gune eta egoerei baitagokie, eta ez 1988az geroztik egin diren babes-adierazpenei. Gure aburuz, ordea, arrazoibide hori onartuz gero, praktikan ezinezkoa izango litzateke legea indarrean sartuz geroztiko ondasunak babestea, eta batere zentzurik ez luke izango botere publikoek eraginkortasunez jokatzeke duten betebeharra, etorkizuneko belaunaldiek kultur ondarea ezagutu, ulertu eta goza dezaten.

Bizkaiko Foru Aldundiak dio espedienteko txostenetan ez dela egiaztatzen zeintzuk diren monumentu-multzoa babesteko dauden kultur balioak, eta eskatzen du Kolonia kulturagune izendatu dadila. Alabaina, txostenotan, Aldundiak dioenez bestera, argi dago eraikina berezia dela, hain zuzen ere ez duelako parerik diseinuaren bitartez erabilerak eskatzen duen funtzionaltasuna, alde batetik, eta bereizgarritasun eta kalitate estetiko handia, bestetik, konbinatzen. Kulturagune izendatzea dela eta, esan behar dugu monumentu-multzoaren kategoria hobeto egokitzen zaiola legeak aurreikusten duenari, Koloniak kultur batasun bat osatzen duten hainbat higiezinez osaturik baitago.

normativa a aplicar en el entorno. A este punto cabe contestar que la inclusión de la parcela obedece a la necesidad de garantizar la preservación de las instalaciones y los valores ambientales del entorno, desde una perspectiva global y conjunta de la protección del patrimonio, que trasciende la mera conservación del ámbito medioambiental.

En cuanto a la afección en la zona de protección del dominio público marítimo-terrestre, el ministerio alega que, al tratarse de obras e instalaciones construidas con anterioridad a la entrada en vigor de la Ley de Costas, se permitirán obras de reparación y mejora que no impliquen aumento de volumen, y que los usos vigentes y legales podrán mantenerse. A este respecto hay que decir que la protección de un bien no comporta, por sí misma, la obligación de realización de obras, sino la obligación genérica del propietario de conservar, cuidar y proteger el bien para asegurar su integridad y evitar su pérdida.

Por lo que respecta a la servidumbre de tránsito y acceso al mar, que implica que debe permitirse el paso público peatonal libre en una franja mínima de seis metros de anchura a lo largo de la ribera del mar, mencionar que la protección de la Colonia no impide ni obstaculiza los demás usos y servidumbres de los terrenos incluidos en su delimitación, en tanto no interfieran en la obligación ya mencionada de conservación, cuidado y conservación del bien.

Por otro lado, el Ministerio considera que no se puede aplicar en este caso la Disposición Transitoria Tercera de la Ley de Costas por referirse a núcleos y a situaciones existentes a la entrada en vigor de la ley, pero no a declaraciones de protección posteriores al año 1988. Se considera que la aceptación de este argumento imposibilitaría en la práctica la protección de bienes con posterioridad a la entrada en vigor de la ley y se vaciaría de contenido la obligación de los poderes públicos de actuar con eficacia para que las generaciones futuras accedan al conocimiento, comprensión y disfrute del patrimonio cultural.

La Diputación Foral de Bizkaia considera que en los informes obrantes en el expediente no se acreditan cuáles son los valores culturales por los que se ha de proteger el Conjunto Monumental y solicita que la Colonia sea declarada Espacio Cultural. En los mencionados informes, al contrario de lo propugnado por la Diputación queda de manifiesto que nos encontramos ante un edificio singular precisamente por ser un ejemplo único en combinar, a través de su diseño, la funcionalidad que su uso requería, con la singularidad y calidad estética que lo caracteriza. En cuanto a que sea declarada Espacio Cultural, decir que se considera más ajustada a lo previsto en la ley la categoría de conjunto monumental al tratarse la Colonia de una agrupación de inmuebles que conforman una unidad cultural.

Aldundiak eskatzen du, halaber, babes-eremuaren mugaketa murriztu dadila, kanpoan utzita Busturiari dagokion lurzatiaren atzealdea eta eraikinari atxikitako lorategietatik hegoaldera dagoen lursaila, Sukarrietako udalerrian. Eskabide horri erantzun behar diogu babes-eremuaren mugaketa arrazoituta dagoela ingurumari ingurumen-balioak, estetikoak eta bisualak babestu behar direlako, eta horren bitartez bertako erakinak berak eta aisialdirako eremuak balioztatu ahal izateko.

Horretaz gainera, Aldundiak dio aintzat hartu behar dela Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren bereizgarritasuna eta, beste ezeren gainetik, Erreserba babesteko eta antolatzeko lanabesak lehenetsi behar direla; izan ere, bertan erregulazio espezifiko bat aurreikusten da erreserbaren sisteman, interes historiko-artistiko eta kulturala duten ondasunentzat, ondasun horien artean kokatzen baita Haur Kolonia. Egia da, bai, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzaileak, III. eranskinean, Interes Kulturala eta Historiko-artistikoa duten Ondasunen behin-behineko zerrenda jasotzen dela. Planak dio behin-behineko zerrenda hori indarrean egongo dela haren ordezkari katalogoa onartu arte. Plana onartu ez denez gero, Aldundiak ondorioztatzen du ezin dela ondasuna babestu ez dagoelako indarreko erregulazio espezifikoaren barruan. Alabaina, Planaren hainbat puntutan argi gelditzen da eranskineko ondasunen zerrenda ez dela zerrenda itxi bat, aldaezina, eta hura handitzeko edo txikitzei aukera aurreikusten da, bai eta Kultura Sailaren eskumena ere Erreserbaren barruan dauden eta interesa kulturala duten ondasunak sailkatzeko edo inbentariatzeko.

Sukarrietako udalak alegatzen du Kultura Sailak ez zuela higiezinaren babesa proposatu edo planteatu, indarrean dauden arau subsidiarioak onartzeko izapideetan. Kultur ondarearen babesa, ordea, ez da egin-kizun estatiko bat, eta orduan babesik ez emateak ez du esan nahi orain eman ezin zaionik.

Udalak dio, era berean, igarobidean lanak egiteko edo udal lizentziak emateko hainbat erakunderen baimenak behar direla. Horri erantzun behar zaio ondasun bat babesteak ez dakarrela, berez, nahitaez esku hartu behar denik bertan, baizik eta hura kontserbatzeko, zaintzeko eta babesteko obligazioa dagoela, eta horrek ez duela eraginik, printzipioz, udalak dituen beste legezko betebeharren alorrean.

Bilbao Bizkaia Kutxarekiko hirigintza-hitzarmenari dagokionez, zeinak aukera ematen baitio udalari, kontraprestaziorik gabe, lursailaren zati bat okupatzeko espaloiak eta bideak egiteko, esan beharra dago ezen Kolonia Zerrenda Nagusian sartzeak sortzen duen obligazio bakarra dela Aldundia jakitun ipini behar dela, gutxienez hilabete aurretik, ondasunari eragin diezaioketen esku-hartze guztiez.

La Diputación solicita, así mismo, una reducción de la delimitación del ámbito de protección, dejando excluida la parte posterior de la parcela que corresponde a Busturia y la parte de terreno situada al sur de los jardines ligados a la edificación, en el término de Sukarrieta. Ante esta pretensión se puede afirmar que la delimitación del área de protección viene dada por la necesidad de preservar los valores ambientales, estéticos y visuales del entorno para poner en valor tanto las propias construcciones como las zonas de esparcimiento que les pertenecen.

En otro orden de cosas, la Diputación sostiene que, teniendo en cuenta la especificidad de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, deben prevalecer las herramientas de protección y ordenación de la misma, que prevén una regulación específica para los bienes de interés histórico-artístico y cultural en el sistema de la reserva, entre los que no se encuentra incluida la Colonia. Efectivamente, en el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai se enumera en el anexo III la relación provisional de Bienes de Interés Cultural e Histórico-Artístico. El Plan prevé que dicha relación provisional estará vigente hasta que no se apruebe el catálogo que lo sustituya. Como no se ha aprobado el mismo, la Diputación infiere que no se puede proteger el bien por no hallarse dentro de la regulación específica vigente. En distintos preceptos del Plan queda claro, sin embargo, que la enumeración de bienes del anexo no es cerrada ni inmutable y se habilita la posibilidad de su ampliación o reducción, y la capacidad del Departamento de Cultura para calificar o inventariar los bienes que tengan interés cultural en el área de la Reserva.

El Ayuntamiento de Sukarrieta alega que en el trámite de aprobación de las Normas Subsidiarias vigentes el Departamento de Cultura no planteó ni propuso la protección del inmueble. La protección del patrimonio cultural no es, sin embargo, una labor estática y el hecho de que no se protegiera en ese momento no impide que se realice ahora.

Alega, así mismo, la necesidad de autorizaciones de diversos organismos para realizar actuaciones en la zona de tránsito o para el otorgamiento de licencias municipales. Cabe responder que la protección de un bien no supone, en sí misma, la obligación de actuación sobre el mismo, sino la obligación de conservarlo, cuidarlo y protegerlo y que no afecta, en principio, a otras obligaciones legales que deba cumplir el ayuntamiento.

En lo relativo al convenio urbanístico con la Bilbao Bizkaia Kutxa, por el que el ayuntamiento puede ocupar, sin contraprestación alguna, parte de la finca para construir aceras y viales, hay que decir que la inclusión de la Colonia en el Inventario General implica únicamente la obligación de comunicación a la Diputación de todas las intervenciones previstas que afecten al bien con una antelación mínima de un mes.

Iñaki Uriarte Palacios jaunak eskatzen du Koloniaren jarduera pedagogikoa kultura-ondasun izenda dadila, ondare materiagabearen modalitatean. Koloniaren jarduera pedagogikoa Bilbao Bizkaiko Kutzaren Gizarte Ekintzaren berezko tradizioztat jo behar da, baina inola ere ezin da hartu Euskal Herriko kultura historiko eta kolektiboaren elementu ordezkarri gisa, eta hori da kategoria horretan sartzeko ezinbesteko baldintza.

Horregatik, alegazioak ez onartzea erabaki da, eta espedienteen izapideekin jarraitzea.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

#### EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Sukarrietako Begoñako Andra Mari Haur Kolonia (Bizkaia) monumentu-multzo kategoriako kultura-ondasun deklaratzeko, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian.

**Bigarrena.**– Ondasun horren deskribapen formal egitea, agindu honen I. eranskinean agertzen den mugaketaren arabera eta II. eranskinean adierazitako eran, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

**Hirugarrena.**– Agindu honen berri ematea Jabetza Erregistroan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

**Laugarrena.**– Higiezin-multzo hori babesteko eskaria egitea Busturiako eta Sukarrietako Udalei, euren udal hirigintza-planeamenduan sartuz.

**Bosgarrena.**– Agindu honen berri ematea interesdunei, Busturiako eta Sukarrietako Udalei, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailari eta Garraio eta Hirigintza Sailari, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailari ere.

**Seigarrena.**– Ondasuna Zerrenda Nagusian sartzeari buruzko agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

#### AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– Inskribatzeko agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

D. Iñaki Uriarte Palacios solicita que la actividad pedagógica de la Colonia sea declarada Bien Cultural en su modalidad de Patrimonio Inmaterial. Se considera que la actividad pedagógica de la Colonia es una tradición propia de la Obra Social de la Bilbao Bizkaia Kutxa, pero en ningún caso es representativa de la cultura histórica y colectiva del País Vasco, requisito indispensable para poder ser incluida en esa categoría.

A la vista de lo expuesto se decide inadmitir las alegaciones y continuar con la tramitación del expediente.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

#### RESUELVO:

**Primero.**– Inscribir la Colonia Infantil Nuestra Señora de Begoña, sita en Sukarrieta (Bizkaia), como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

**Segundo.**– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden, a los efectos previstos en la Ley del Patrimonio Cultural Vasco.

**Tercero.**– Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, según lo establecido en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

**Cuarto.**– Instar a los Ayuntamientos de Busturia y Sukarrieta para que procedan a la protección de dicho conjunto de inmuebles contemplándolo en sus instrumentos de planeamiento urbanístico municipal.

**Quinto.**– Notificar la presente Orden a los interesados, a los Ayuntamientos de Busturia y Sukarrieta, a los Departamentos de Cultura y de Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

**Sexto.**– Publicar esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

#### DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

**Bigarrena.**– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke Kulturako sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 28a.

Kulturako sailburua,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

## I. ERANSKINA

### MUGAKETA

#### a) Mugaketaren eremua.

Mugaketak, alde batetik, Kolonia bera (eraikin nagusia eta kapera) eta haren eraikin osagarriak (jagolearen etxea eta zuzendariaren etxebizitza) hartzen ditu, eta beste aldetik, Kolonia inguratzen duen eta osatzen duen lorategia, zeinean sartzen baitira pergola eta hondartzarako eskailerak, bai eta lorategiko altzari guztiak ere. Horietaz gainera, kirolgunea eta atzealdeko baratzeak ere sartzen dira.

Beraz, hona zeintzuk diren monumentumultzoaren mugak: iparraldetik, gaur egun baratzeek okupatzen duten zonaldearen kanpoaldea, nekazaritza eta abeltzaintzarako eraikina kenduta; mendebaldetik, Zornotza-Bermeo trenbidea eta hondartzarako bidea; hegoaldetik, ingurunearen harresia eta hondartzarako bidea; eta ekialdetik, Gernikako itsasadarrarekin paraleloki doan hesia eta San Antonio ermitaren ondotik doan paseabidea.

Busturiako udalerrria hartzen du, bertan baitaude multzoaren sarbidea, jagolearen etxea eta atzealdeko lorategien zati bat, eta Sukarrietako udalerrria ere bai, eraikin nagusia, kapera, zuzendariaren etxebizitza eta lorategiaren gunearen gainerako zatia, aurrealdeko lorategiak eta pergola barne hartuta.

#### b) Mugaketaren justifikazioa.

Mugaketaren helburua ez da bakarrik elementuaren kontserbazioa bermatzea, baizik eta instalazioen ezaugarri bereziak eta inguruneke ingurumen-balioak zaintzea.

**Segunda.**– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de marzo de 2011.

La Consejera de Cultura,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

## ANEXO I

### DELIMITACIÓN

#### a) Ámbito de la delimitación.


La delimitación incluye, por un lado, la propia Colonia en sí (edificio principal y capilla) y sus edificios auxiliares (casa del guarda y vivienda del director) y, por otro, el recinto ajardinado que lo rodea y complementa formando un conjunto, recinto que engloba también la pérgola y escaleras de acceso a la playa, así como todo el mobiliario de los jardines. Así mismo, incorpora el área deportiva y las huertas posteriores.

Por tanto, los límites de conjunto monumental vienen definidos: al norte, por el exterior de la zona actualmente ocupada por huertas, excluyendo el edificio agropecuario; al oeste, por la línea del ferrocarril Amorebieta - Bermeo y el camino a la playa; al sur, por la tapia del recinto y el camino a la playa; y al este, también por la cerca paralela a la ría de Gernika y el paseo que discurre junto a la ermita de San Antonio.

Abarca los municipios de Busturia, donde se enclava el acceso al conjunto, la casa del guarda y parte de los jardines traseros, y Sukarrieta, donde están el edificio principal con la capilla, la vivienda del director y el resto de la zona ajardinada, incluyendo los jardines delanteros y la pérgola.

#### b) Justificación de la delimitación.

La delimitación establecida tiene por objeto garantizar, no solamente la conservación del elemento, sino también preservar las características específicas de las instalaciones y los valores ambientales del entorno.



ESKALA / ESCALA



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**



KULTURA SAILA  
Kultura Ondarearen Zuzendaritza  
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Dirección de Patrimonio Cultural  
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano:

COLONIA INFANTIL NTRA.  
SEÑORA DE BEGOÑA

Lurraldea / Territorio:

BIZKAIA

Data / Fecha: 14/05/2010

Udalerría / Municipio: BUSTURIA, SUKARRIETA

Eskala / Escala: 1:2.500

## II. ERANSKINA

## DESKRIBAPENA

Begoñako Andra Mari Haur Kolonia Sukarrietako kanpoaldean dago, Abiñako San Antonio auzoan. Zornotza-Bermeo errepidearen ondoan dago, Gernikako itsasadarraren bokalean, San Antonio hondartzaren alboan. 78.000 m<sup>2</sup>-ko lurzati bat okupatzen du, Busturia eta Sukarrieta artean, ekialdetik Gernikako itsasadarra bera muga duena, eta mendebaldetik Zornotza-Bermeo trenbidea eta bi herri horiek lotzen dituen errepidea. Koloniara iristeko hiru bide daude: errepide nagusitik, hondartza eta pasealekutik, edo trenbidetik, Sukarrietako tren-geralekua Koloniarekin lotzen duen bidetik.

Kolonia osatzen duten eraikinak zelai eta lorategiz osaturiko berdegune zabalek inguratuta daude. Buakaera aldean pergola bat duen mailadi batek lotzen du Kolonia pasealekuarekin eta hondartzarekin. Pergolaren alboan 38 m-tik gora duen eukaliptu handia dago, Sukarrietako Koloniaren ikur bilakatu dena.

Gune fundatzaileko eraikin guztiak (jagolearen etxea, zuzendariaren etxebizitza eta eraikin nagusia) hegoaldera begira daude, horrela bi helburu betetzen baitituzte: ahalik eta argi-ordu gehien aprobetxatzea eta ingurune osasungarri, ongi aireztatua eta argitsua bermatzea, xede sanitario horretan oinarrituta altxatu baitzen.

Ricardo Bastidak proiektatu zuen Koloniaren eraikin nagusia, kaperarekin, Ramón de la Sotarentzat, 1925ean. Helburua arrantzaleen seme-alabei arreta ematea izan zen. Baina helburu hori alde batera utzi, eta Bilboko Udal Aurrezki Kutxari saldu zitzaion eraikina, zuzendariaren etxebizitzarekin eta jagolearen etxarekin batera, bai eta Busturiaren eta Sukarrietaren arteko inguruko lur-sail handia ere. 1925ean, Begoñako Andra Mari Haur Kolonia jarri zen bertan. Oinplano laukizuzena du, luzetara dagoena, eta fatxada nagusia alde handietako batean du, zehazki hegoaldera begira dagoenean. Oinplanoa hiru pabiloik osatzen dute, elkarren artean galeria terrazadunen bitartez lotuak. Laukizuzen honetan kaperaren atala nabarmentzean da, multzoarekiko perpendikularra, iparraldeko fatxadan irteten dena. Erdiko gorputzari atxikia, jatorriz museoa gordetzen zuen tokian, dorrea altxatzen da, zeinak jatorrizko bi pabiloik eta 1928ko zabalkuntzatik bereizten baititu.

Eraikin osoa hormigoi armatuzko forjatuz egin da dago, salbu eta kapera, zurezko egitura baitu. Itxitura-hormak kanpoaldetik paramentu leunez eta bistan dagoen harlangaitzez eginak daude, eta haien eitea bat dator Koloniako gainerako eraikinekin. Pabiloik lau uretako estaldura batez eta hegalkin komun batez errematatuta daude, hormigoizko armazoi

## ANEXO II

## DESCRIPCIÓN

La Colonia Infantil Nuestra Señora de Begoña se encuentra enclavada a las afueras de Sukarrieta, en el barrio de San Antonio de Abiña. Se sitúa junto a la carretera Amorebieta - Bermeo, en la desembocadura de la ría de Gernika, adyacente a la playa de San Antonio. Ocupa una finca de 78.000 m<sup>2</sup> entre las localidades de Busturia y Sukarrieta, limitada por la propia ría de Gernika al Este y al Oeste por la línea del ferrocarril de Amorebieta - Bermeo y la carretera que une estas localidades. Se accede a ella bien desde la carretera general, bien desde la playa y el paseo, o bien a través del ferrocarril, por un camino que comunica el apeadero de Sukarrieta con la Colonia.

Las construcciones que conforman la Colonia se rodean de amplios espacios verdes de campos y jardines, y el conjunto se comunica con el paseo y la playa de San Antonio mediante una escalinata rematada en pérgola. Junto a ella se alza un alto eucalipto, de más de 38 m de altura, convertido hoy en señal de identidad de la Colonia de Sukarrieta.

Todos los edificios del núcleo fundacional (casa del guarda, vivienda del director y edificio principal) se orientan hacia el Sur con un doble objetivo: garantizar la mayor cantidad de horas de luz y conseguir un entorno saludable, bien ventilado e iluminado, que responda al propósito sanitario con que se crearon.

El edificio principal de la Colonia, con la capilla, fue proyectado por Ricardo Bastida para Ramón de la Sota en 1925, con el fin de albergar una casa para atender a los hijos de trabajadores del mar. Abandonado este proyecto, este edificio, junto con la vivienda del director y la casa del guarda, así como el amplio terreno que ocupaban entre Busturia y Sukarrieta, fue vendido a la Caja de Ahorros Municipal y Monte de Piedad de Bilbao. Aquí se instalaría en 1925 la Colonia Infantil Nuestra Señora de Begoña. Presenta planta rectangular, muy longitudinal, con la fachada principal en uno de los lados mayores, concretamente en el orientado al Sur. La planta está formada por tres pabellones, unidos entre sí mediante galerías aterrazadas. Se destaca de este rectángulo el cuerpo de la capilla, perpendicular al conjunto, que sobresale en la fachada Norte. Anexa al cuerpo central, ocupando el espacio que originalmente albergó el museo, se alza la torre que divide los dos pabellones originales de la ampliación de 1928.

Todo el edificio se construye con forjados de hormigón armado, a excepción de la capilla, que presenta estructura de madera. Los muros de cierre se revisten al exterior combinando paramentos lisos con mampostería vista, manteniendo una imagen coherente con el resto de edificios de la Colonia. Cada uno de los pabellones se remata en cubierta a cuatro aguas

baten gainean eta zenbait teilatutxo perpendikularrez hornituta, zeinek estalkipeko solairuaren aireztapen eta agiztapenerako baoetarako tokia bermatzen baitute. Kaperak bi isuriko teilatua du, oktagonala absidean, barrualdetik igeltsuak estalia, ganga trenkatuaren tankeran. Dorrea, bestalde, estalki piramidal batez amaitzen da.

Eraikinaren kanpoko itxura, bere ezaugarri plastiko eta apaindurazkoei dagokienez, estilo neobaskokoa da, 1920ko hamarkadan eta Ricardo Bastidaren lanean ohikoak ziren parametroen bitartez bikain definitua. Oro har lau bao-erregistro ditu, solairuen banaketarekin bat datozenak. Fatxada nagusian oreak dago zuloaren eta hormaren artean, eta atzeko fatxadan eta alboetakoetan horma nagusitzen da. Baoen eraketa oso aldakorra da: arku eskartzanoak eta puntu erdikoak, batez ere sarbide eta eguteretan; bao karratuak pabiloiak elkartzen dituzten galerietan; ardatz bertikaleko bao laukizuzenak alboko pabiloietan, eta abar.

Kapera eraikin nagusian integratuta dago, eta perpendikularki kokatzen da mendebaldeko hegalaran eta erdiko pabiloiaren artean. Kanpoaldetik, kaperraren oinaldeak eraikinaren atzealdean duen proiektzioa nabaritzen da, absidea eta gela osagarriak begibistan daudelarik, eta burdina forjatuzko kanpai-horma bat ere ikus daiteke higiezinaren fatxada nagusian.

Barrualdean korua du, nabe nagusiaren oinaldean altxatzen dena, eta bertara iristeko lehenengo solairuan du sarbidea. Argiztapena hormetakoa da, alegia, gangako lunetoen artean (lau luneto, nabearen alde bakoitzean) ireki diren puntu erdiko bao zabaletatik sartzen da, beirate beruneztatuz ixten direnak. Eskuinaldeko alboko nabean arku eskartzanodun leiho zabal bat zabaltzen da, beirate beruneztatuarekin baita ere.

Kaperraren aurrean, mendebaldeko hegala eta erdiko pabiloia elkartzen dituen galerian, erdiko atala mendebaldeko hegalararekin lotzen dituen korredorea dago, elizkizunetarako gunearen atari gisa. Haren baotetan hiru beirate beruneztatu txertatu ziren 1960ko hamarkadan, eraikina eraberritu zenean: erdikoa, kaperraren sarrerari aurrez aurre, gai erlijiosoak dituen, eta albokoak, umeen gaiak dituen. Bilboko Vidrieras de Arte SA enpresak diseinatu eta fabrikatu zituen, 1964an.

Atezain edo jagolearen etxeak jatorrizko funtzioari eusten dio; Zornotza-Bermeo errepidetik Kolonian sartzeko bide nagusiaren ondoan dago, zehazki bidearen ezkerreko ertzean, Busturiako udalerriko lurretan.

Oinplano laukizuzena duen eraikina da, 75 m<sup>2</sup>-ko azalera duena, lurreko maldari egokituta altxatua. Malda hori dela eta, erdisotoa du -fatxada nagusitik

y común voladizo, sobre armazón de hormigón, con algunos tejadillos perpendiculares que permiten abrir vanos para la ventilación e iluminación de la planta bajo cubierta. La capilla presenta cubierta a dos aguas, ochavada en el ábside y oculta al interior por yeserías simulando bóveda vaída. Por su parte, la torre remata en cubierta piramidal.

El aspecto exterior del edificio corresponde, en su lenguaje plástico y ornamental, con el estilo neovasco, perfectamente definido en los parámetros que eran habituales en la década de los 20 y en la obra de Ricardo Bastida en este periodo. En general presenta cuatro registros de vanos, coincidentes con la distribución interna de las plantas. En la fachada principal hay un equilibrio entre hueco y muro, con un predominio de este último en las fachadas zaguera y laterales. El formato de los vanos es muy variable, incluyendo arcos escarzanos y de medio punto, sobre todo en accesos y solanas, vanos cuadrangulares en las galerías que unen los pabellones, vanos rectangulares de eje vertical en los pabellones laterales, etc.

La capilla se integra en el edificio principal respecto de cuya planta se dispone, perpendicularmente, entre el ala Oeste y el pabellón central. Su presencia se trasluce al exterior tanto por la proyección de su planta hacia la trasera del edificio, quedando a la vista el ábside y las dependencias auxiliares, como por la presencia de una espadaña de hierro forjado, visible en la fachada principal del inmueble.

Interiormente cuenta con un coro, al que se accede desde el primer piso, elevado a los pies de la nave principal. La iluminación es muraria, a través de amplios vanos de medio punto abiertos entre los lunetos de la bóveda, cuatro a cada lado de la nave, y cierran con vitrales emplomados. En la nave lateral derecha se abre un amplio ventanal de arco escarzano, también con vidriera emplomada.

Ante la capilla, en la galería que comunica el ala Oeste y el pabellón central, se abre un pasillo que comunica el cuerpo central con el ala Oeste, actuando de atrio para el espacio religioso. En sus vanos se incorporaron, coincidiendo con la reforma del edificio realizada en la década de los 60, tres vidrieras emplomadas, la central, situada frente a la entrada de la capilla, de temática religiosa y las laterales con temas infantiles. Fueron fabricadas y diseñadas por la empresa bilbaína Vidrieras de Arte, S.A. en 1964.

El edificio de portería o casa del guarda, que mantiene su función original, se sitúa junto al acceso principal a la Colonia desde la carretera de Amorebieta - Bermeo, en la margen izquierda del camino que conduce al edificio principal, en terrenos pertenecientes al municipio de Busturia.

Se trata de una construcción de planta rectangular, con unos 75 m<sup>2</sup> de superficie, construida en un terreno en declive, a cuya pendiente se adapta. De ahí



ikusten ez dena— behe-solairua, lehen solairua eta ganbara. Zurezko egitura du, harlangaitzezko karga-hormak, eta zurezko armazioan bermatzen den lau isurialdeko estalkia. Estalkia teilatuko hegalean ikus daiteke, fatxaden gaineko hegalkin komun batean.

Gela guztiak bi orriko zurezko leiho atalburudun hornituta daude eta, horri esker, ez dago aireztapenik gabeko logelarik.

Sarbidea fatxada nagusiaren erdialdean dago. Fatxada horretan bertan hiru mailako eskailera txiki bat dago, egutera jotzen duena, eta bertatik etxebizitzaren barrualdera sartzen da. Egutera edo arkupe honetan, hormak azulejo txuri eta urdinez xafazaturik zeuden garaiera erdiraino, baina gaur egun behealdekoak baino ez dira geratzen.

Zuzendariaren etxebizitza oinalde apur bat laukizuzena duen eraikin exentu batean dago, gutxi gorabehera 110 m<sup>2</sup> dituen, lursailaren kanpoaldetik Kolonia inguratuz jagolearen etxetik hondartzaraino doan alboko bidetik gertu. Lorategiz inguratuta dago, bereziki garatuak fatxada nagusiaren aurrealdean.

Higiezinaren altxadurak lau solairu ditu: erdisotoa, behe-solairua, lehenengo solairua eta estalkipeko solairua. Solairuen arteko komunikazioa oinalde karraua duen zurezko eskailera baten bitartez egiten da, erdian zuloa duen eta solairuen atzealdean dagoena.

Zurezko egitura du, harlangaitzezko karga-hormak, eta zurezko armazioan bermatzen den lau isurialdeko estalkia, zeina hegalean ikus daitekeen, hegalkin komunean. Estalkian hiru teilatutxo daude, ardatzarekiko perpendikularrak, alegia, bat datozenak fatxada nagusiarekin, alboko eskuinaldekoarekin eta atzealdekoarekin.

Baoak ditu fatxada guztietan, nahiz eta hormak zuloek baino tarte handiagoa hartzen duen, salbu eta fatxada nagusian, zeina alde horretatik orekatuagoa den. Bi sarbide ditu: nagusia hegoaldeko fatxadan, eta alboko sarbide bat ekialdetik, erdisotora zuzenean jotzen duena.

Aurrealdeko lorategiak konposizio simetrikoa du, ardatza gaur egun igerilekura eta jolasgunera jotzen duen pasealekua duela. Malda arin bat duen lurzerrenda estu bat dago, ekialdetik mendebalderako norantzan, zuzendariaren etxebizitzatik hondartzaren sarbideraino. Lorategi honek balio ordezkarri berezia du, are eszenografikoa, halako lotura bat egiten duelako Bastidak eraikin nagusiarentzat diseinatu zuen arkitektura-moldearen eta zuzendariaren etxebizitzaren artean. Lorategiko altzariek indartu egiten dute lotura hori, batez ere hura eta hondartzarako eskailerak tokirik hurbilenean mugatzen dituzten hormigoizko hormatxoek.

que en alzado cuenta con semisótano –oculto en la fachada principal–, planta baja, primer piso y desván. Presenta estructura de madera, con muros de carga de mampostería y cubierta a cuatro aguas, también sobre armadura lignea. Ésta resulta visible en el alero del tejado, en común voladizo sobre las fachadas.

Las ventanas adinteladas con carpintería de madera y sistema de cierre de doble hoja se abren en todas las estancias impidiendo la presencia de habitaciones sin ventilación.

El acceso se sitúa centrado en la fachada principal. En ella se encuentra una pequeña escalera de tres peldaños que conduce a la solana, desde la que se accede al interior de la vivienda. En esta zona de solana o porche las paredes se encontraban enchapadas en azulejo blanco y azul hasta media altura, de las que se mantienen las hileras inferiores.

La vivienda del director ocupa un edificio exento de planta ligeramente rectangular, con una superficie aproximada de 110 m<sup>2</sup>, situado próximo al camino lateral que, desde la casa del guarda conduce a la playa bordeando la Colonia por el exterior de la finca. Se rodea de zona ajardinada especialmente desarrollada ante su fachada principal.

En alzado el inmueble consta de 4 alturas, distribuidas en semisótano, planta baja, primer piso y planta bajo cubierta. La comunicación vertical entre los pisos se realiza mediante una escalera de madera de planta cuadrada, con hueco central, situada en la parte posterior de la planta.

Su estructura es de madera, con muros de carga de mampostería y se remata en tejado a cuatro aguas, también sobre armadura lignea, visible en el alero en común voladizo. En la cubierta se abren tres tejadillos perpendiculares al eje, coincidiendo con las fachadas principal y lateral derecha y zaguera.

Cuenta con vanos en todas sus fachadas, si bien hay un claro predominio del muro sobre el hueco, a excepción de la fachada principal, más equilibrada en este sentido. Tiene dos accesos: el principal en la fachada Sur y uno lateral en la fachada Este, que da paso directo al semisótano.

El jardín delantero presenta una composición simétrica, dividida por el eje del paseo que hoy conduce a las piscinas y área recreativa. Se dispone en una estrecha franja de terreno, en ligero declive, orientada de Este a Oeste, que transcurre desde la vivienda del director hasta el acceso a la playa. Este jardín adquiere un fuerte valor representativo, incluso escenográfico, estableciendo un diálogo con la arquitectura que Bastida diseñó para el edificio principal y la vivienda del director. Este diálogo se refuerza mediante el mobiliario del jardín, sobre todo los muretes de hormigón que lo limitan, en su extremo más próximo, con las escaleras que comunican con la playa.

Lorategia pergola txukun batean amaitzen da ekialdetik, hondartzarako sarbidearen buru gisa. Oinalde makotua duen eraikina da, hormigoi armatuzkoa, bistako adreiluz estalita dauden sekzio koadroko kolometan egituratua. Kolomak 3 m zabal den korredore baten alboetan daude. Kolomen gainean hormigoizko habexka-sare bat dago, zurezko parralen tankera imitatuz.

Atzealdeko lorategia, aldiz, oso bestelakoa da, parterrik gabe. Haren taxuketa bidezidor batean ardatzen da, kaperaburutik sigi-saga doana lursailaren iparraldeko mugaraino, alboan apaindurazko floroiak dituzten eskailerak mantentzen direlarik. Bidezidorren buruan begiratoki bat dago, alde batetik lotuta hondartzarako beheranzko bidearekin, eta, bestetik, multzoko eraikin modernoagoen aldearekin. Atzealdeko lorategi honetan bi ur-biltegi daude, Kolonia urez hornitzeko.

Lorategiok eraikinaren luzakin modukoak dira, hura osatzen duten elementuak, eta, horrenbestez, programa arkitektonikotik ezin bereiztuzkoak.

El jardín termina en su extremo Este en una cuidada pérgola que preside el acceso a la playa. Es una construcción de planta curva, levantada en hormigón armado, a base de columnas de sección cuadrada recubiertas de ladrillo caravista, dispuestas a ambos lados de un pasillo de 3 m de ancho. Sobre estas columnas discurre un entramado de viguetas, también de hormigón, imitando emparrado de madera.

El jardín posterior, por el contrario, tiene un aspecto muy diferente, sin parterres. Su urbanismo se basa en un sendero que serpentea desde la cabecera de la capilla, donde se conservan las escaleras flanqueadas de florones ornamentales, hacia el límite Norte de la finca. Se remata este sendero en un mirador, comunicado, por un lado, con la bajada a la playa y, por el otro, con la zona de los edificios más modernos del conjunto. En este jardín trasero se conservan dos depósitos de agua para dar servicio a la Colonia.

Estos jardines se conciben como una prolongación del edificio, diseñados para complementarlo y son, por tanto, indisociables del programa arquitectónico.